



Desira

1

Begiratu Emoziotegiko 84-85. orrialdeetako irudiari, eta deskribatu zer ari den gertatzen.

2

Orain, erantzun irudiari buruzko galdera hauei (Emoziotegiko 84-85. orrialdeak).

● Zer lortu nahi du hartzak?

● Zergatik uste duzu nahi duela hori?

● Uste duzu zerbait egiten saiatuko dela hori lortzeko? Zer?

3

Irakurri Emoziotegiko 84. orrialdeko testua, eta erantzun galderai.


● Zer desiratzen dugu?

● Zertara garamatza desirak?

● Zer motatako desirak daude?

4

Osatu gurutzegrama **desiratu** hitzaren familiako hitzekin.



- 1 Nahia; nahi bizia.
- 2 Desira izan, nahi izan.
- 3 Bereganako desira sortzen duena.

5

Bilatu Emoziotegiko 84. orrialdeko testuan adierazpen hauen kontrako esanahia duten hitzak:

- azalekoa → _____
- iraunkorra → _____
- betekada → _____
- desberdina → _____

6

Osatu esaldiak aurreko ariketan idatzi dituzun hitzak erabiliz.

- Oso heldua da duen adinerako, eta gai _____ lantzea gustatzen zaio.
- Haren haserrea _____ izaten da; minutu gutxi batzuk baino ez du irauten.
- Janire ez da inoiz asetzen; otordua bukatu orduko, _____ sentitzen du berriz.
- Badakigu desira guztiak ez direla _____: bakoitzak nahi dugunaren araberakoak dira.

7

Gauzak lortzeko desira edo **grina** duen pertsona grinatsua bada, nora deritzo adimen handia duen pertsonari? Osatu.

- Adimen handia duena → _____
- Adorea duena → _____
- Arrakasta duena → _____

8 Egin **desira**-zerrenda bat.

- Nola lor dezakezu desira horiek betetzea?

- Inguratu urdinez **gutiziak** direnak.

9 Idatzi **D (desira sakona)** edo **G (gutizia)**, dagokionaren arabera.

- Haizeak erizaina izan nahi du hiru urte zituenetik.
- Enekok suhiltzaileei buruzko film bat ikusi zuen atzo, eta gaur suhiltzaile izan nahi du.
- Joanek baserri bat izan nahi du kosta ahala kosta.
- Enarak txakurtxo bat duenez, Iratik ere txakurtxo bat nahi du.
- Joanek parkera joan nahi du gaur arratsaldean.
- Elaia ilargira joateko gogoz oheratzen da gauero.

10

Begiratu berriz Emoziotegiko 84-85. orrialdeetako irudiari. Zer uste duzu egingo duela hartzak ezta lortzeko? Deskribatu, eta marraztu prozesuaren urrats bakoitza.

